Bestelako Xedapenak

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

4251

AGINDUA, 2009ko ekainaren 16koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, Bilboko Peñaskal auzoko finka bat (27 zenbakidun etxea, ezkerreko behe solairua) desjabetzeko espedientea hastea erabakitzen duena.

Sail honek ondoren argitaratzen den agindua eman du gaur:

«Bilboko udal-mugarteko Iturrigorri-Peñascalen dagoen Etxebizitzetarako Aldearen Berehalako Ekintza-Egitamua» izeneko proiektuari dagokion hirigintza-espedientea aztertu da.

Bizkaiko Foru Aldundiak, 1983ko abenduaren 5ean, «Bilboko udal-mugarteko Iturrigorri-Peñascalen dagoen Etxebizitzetarako Aldearen Berehalako Ekintza-Egitamua»ri buruzko espedientea behin betiko onartu zuen.

Espediente honek aztergai duen finka babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzera bideratutako eremu baten barruan dago, Bilboko Peñaskal kaleko laugarren eta bosgarren zenbakietan eraikitako etxebizitzen sustapen bat hartzen duen lurzatian, hain zuzen (EB2-165/84-EE-000).

Aipatutako etxebizitzen sustapena gauzatzea luzaezintzat jo da, eraikuntza merkatua nola dagoen ikusita, diru-ahalmen gutxien duen biztanleria-taldeari etxebizitza duina eta prezio eskuragarrian bideratzekotan. Era berean, aurreikusita dago antolamendutik kanpora dauden eraikinak lurreratu beharra dagoela.

Eusko Legebiltzarraren 2/2006 Legearen (ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa) 176. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Hirigintza Planak onartzeak obren onura publikoa deklaratzea eta lurrak eta dagozkion gainerako ondasun eta eskubideak okupatu beharra dakar, desjabetzeko edo zortasunak ezartzeko.

Aipatutako desjabetzeko espedienteak aztergai duen etxebizitza Bilboko Hiri Antolamendurako Plan Nagusian hirikotzat hartuta dauden lurretan dago, eta, bertan, desjabetzea finkatuta dago jarduteko sistema gisa. Beraz, Eusko Legebiltzarraren 2/2006 Legean (ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa) ezarritakoaren arabera, bidezkoa da nahitaezko desjabetzea ezartzea.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA, OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES

4251

ORDEN de 16 de junio del 2009, del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, por la que se acuerda iniciar el expediente expropiatorio de la finca «Planta baja izda. de la casa n.º 27 del Barrio del Peñascal, Bilbao».

En el día de hoy esta Consejería ha adoptado la Orden que a continuación se publica:

Visto el expediente urbanístico correspondiente al Proyecto «Plan de Actuación Inmediata de la zona residencial de Iturrigorri-Peñascal, de Bilbao».

Resultando que la Diputación Foral de Bizkaia, con fecha 5 de diciembre de 1983, aprobó definitivamente el expediente relativo al «Plan de Actuación Inmediata de la zona residencial de Iturrigorri-Peñascal, en el término municipal de Bilbao».

Resultando que la finca objeto de este expediente se encuentra dentro de un ámbito destinado a la construcción de viviendas de protección oficial, y, más concretamente, en la parcela sobre la que se sitúa una promoción de viviendas construidas a la altura de los números cuatro y cinco de la calle Peñascal de Bilbao (EB2-165/84-EE-000).

Resultando que la ejecución de la promoción de viviendas mencionada resulta inaplazable dada la situación del mercado inmobiliario, al objeto de posibilitar el acceso a una vivienda digna a un precio razonable al sector de población de más escasa capacidad económica.

Considerando que, de conformidad con lo establecido en el artículo 176 de la Ley del Parlamento Vasco 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, la aprobación de Planes Urbanísticos implica la declaración de utilidad pública de las obras y la necesidad de ocupación de los terrenos y demás bienes y derechos afectados correspondientes, a los fines de expropiación o imposición de servidumbres.

Considerando que la finca objeto del presente expediente expropiatorio se encuentra en los suelos clasificados por el Plan General de Ordenación Urbana de Bilbao como urbanos, determinando como sistema de actuación el de expropiación, por lo que, de acuerdo con lo establecido en el artículo 177 de la Ley del Parlamento Vasco 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, procede la aplicación de la institución de la expropiación forzosa.

Aipatutako xedapenei, horien kidekoei eta ezargarri den gainontzekoari atxikiz, honako hau

XEDATU DUT:

1.– «Bilboko Peñaskal auzoko finka baten (27 zenbakidun etxea, ezkerreko behe solairua)» nahitaezko desjabetzearen espedienteari hasiera ematea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Eusko Legebiltzarraren Legearen 176. eta 178. artikuluetan eta laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoa betez, betiere horren baitan bildutzat emanda obrak onura publikokoak direla deklaratzea eta lurrak eta dagozkion eraikinak desjabetu edo zortasun-ezarketa egin beharra dagoela, Eusko Legebiltzarraren 2/2006 Legearen (ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa) 176. artikuluan xedatutakoari jarraiki. Aipatutako espedienteak Bilboko Peñaskal auzoko 27 zenbakidun ezkerreko behe solairuko etxebizitzari eta elementu komunei dagozkien ondasun eta eskubideetan du eragina.

Titularraren izen-abizenak eta helbidea:

Nicanor Chamorro Chamorro jauna eta Julia Castellanos Chamorro andrea. Helbidea: ezezaguna.

2.– Aipatutako espedienteak hartutako ondasun eta eskubideen titularrei jakinaraztea, jasotzetik hamabost asteguneko epearen barruan, bidezko diren arrazoibide-idazkiak aurkeztu ahal izateko Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzan (Gran Vía, 85, Bilbao), aipatutako zerrendan dauden akatsak zuzentzekotan. Hori guztia Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen (1954ko abenduaren 16koa) 17. eta hurrengo artikuluetan eta haren Erregelamenduari dagozkionetan xedatutakoa betez, eta Eusko Legebitzarraren 2/2006 Legearen (ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa) 178. artikuluaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko ekainaren 16a.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

Vistos los preceptos legales citados, sus concordantes y demás normativas de aplicación,

DISPONGO:

1.– Iniciar el expediente de expropiación forzosa de la finca «Planta Baja izda. de la casa n.º 27 del Barrio del Peñascal, Bilbao», de conformidad con lo dispuesto en los artículos 176, 178 y Disposición Adicional Cuarta de la Ley del Parlamento Vasco 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, entendiéndose implícita la declaración de utilidad pública de las obras y la necesidad de ocupación de los terrenos y edificios correspondientes a los fines de expropiación o imposición de servidumbres, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 176 de la Ley del Parlamento Vasco 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, determinando como bienes y derechos afectados por el presente expediente los correspondientes a la vivienda sita en la planta baja izquierda de la casa n.º 27 del Barrio del Peñascal de Bilbao y sus elementos comunes.

Nombre y domicilio del titular:

Don Nicanor Chamorro Chamorro y Dña. Julia Castellanos Chamorro. Domicilio: desconocido.

2.– Notificar a los titulares de los bienes y derechos afectados por el expediente de referencia, a fin de que durante el plazo de quince días hábiles, contados a partir de su recepción, pueda presentar en la Delegación Territorial de Bizkaia del Departamento Vivienda, Obras Públicas y Transportes, sita en Gran vía, 85, Bilbao, cuantas alegaciones se estimen oportunas, al objeto de permitir rectificar los errores contenidos en la citada relación, todo ello de conformidad con lo dispuesto en el artículo 17 y siguientes de la Ley de Expropiación Forzosa, de 16 de diciembre de 1954, y concordantes de su Reglamento, y a tenor del artículo 178 de la Ley del Parlamento Vasco 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

En Vitoria-Gasteiz, a 16 de junio de 2009.

El Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.